

2009/08/28

Familiantzako tailer berriak egongo dira irailean Igartubeitin

Udako oporrak hasi baino lehen eta hilabeteetan zehar, familiei zuzendutako tailer didaktiko desberdinak aurrera eramane dira Igartubeitin, hauekin baserria, bertako bizimodua eta bere ingurua ezagutzeko aukera ederra zabaldu dutelarik. Gutxi falta da opor hauek amaitzeko eta dagoeneko tailer berriak prestatu dituzte Igartubeitikoek hauek irailaren lehenengo asteburuan hasiko direlarik.

Irailaren 4an hasiko dira tailer berriak eta honetan, arratsaldeko 16:30etan hasita ' Saguzarra aurki-tzen ' ginkana egongo da: Bizilagun xelebrea bizi da Igartubeitiko errailetan. Gure saguzarra aurkitu dezazuen proba eta joku desberdinen laguntza izango duzue!, azaltzen dute antolatzaileek. Hurrengo asteburuan, irailak 12, mozorro tailerra ospatuko da Igartubeitin; eta hilaren 19an an-tzerki batekin goatzeko aukera izango dute gazte eta helduek. Tailer guztiak arratsaldeko 18:30etan bukatuko dira.

Hilabetearekin amaitzeko, eta orain arte egin izan den bezala, bi ekintza egongo dira irailaren 26an. Hasteko, arratsaldeko 16:30etan, Mermelada egiteko tailerra egongo da interpretazio zentruan, familiei zuzendua, eta Nahera baserriko artisauen eskutik. Amaitzerakoan, 18:00ak aldera, Igartu merienda gozoa hartzeko aukera izango dute bertan daudenek. Animatu!

Bisita gidatuak

Irailean zehar ere bisita gidatuak egongo dira Igartubeiti Baserri Museoan: irailaren 1etik 15era, asteartetik igandera, 11:00etan, 12.30etan eta 17:00etan izango dira bisita hauek; irailaren 16tik 30era berriz, asteazkenetik igandera, 11:00etan eta 12:30ean. Larunbata eta igandeetan 17:00etan ere bisita gidatua hartzeko aukera egongo da.